



EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE



Euskaltzaindiaren Mintzola deialdia (2023)

euskaraz egiten den ahozko jardunari buruzko ikerketa-lanak saritzeko

Euskaltzaindiak, Mintzola proiektuaren bidez, euskaraz egiten den ahozko jardunari buruzko hiru ikerketa-lan saritzeko deialdia argitaratu zuen martxoan. Ikertzaile gaztea edo hasiberria doktoretza-tesiraino eramango duen ibilbidean, aurreko erabakiak eta urratsak ere garrantzitsuak dira, eta hain zuzen ere, bide horretan laguntzea eta, unibertsitateko edozein jakintza-alorretatik abiatuta, ondoko zazpi eremuak oinarrian direla, euskaraz egiten den ahozko jarduna ikergai gisa sustatzea da deialdi honen helburua.

Hona hemen ilkergaiak:

1. Eguneroko hizkera informalkaren ezaugarriak eta beronen egoera euskal komunitatean. Oinarriak, corpusa eta diagnostikoa.
2. Euskalkiak eta estandarra ahozko hizkeraren funtzioetan: praktiken azterketa eta jarraibide batzuk sortzeko oinarriak.
3. Eguneroko hizkerarako adierazkortasun-baliabideak hezkuntza arautuan lantzeko bideak eta formulak.
4. Aisialdi antolatuan eta hezkuntza ez-arautuan adierazkortasun baliabideak lantzeko bideak eta formulak.
5. Eguneroko hizkerarako adierazkortasun baliabideak hedabideetatik eta ingurune digitaletik sustatzeko bideak eta formulak.
6. Eguneroko hizkerarako adierazkortasun-baliabideak lantzeko bestelako bideak.
7. Hitanoa lantzeko eta hedatzeko bideak eta formulak.

Lan bakarra aurkeztu da deialdi honetan:

Kode-alternantziaren erabilera eta jarrera euskaldunengan

Proposamenaren egilea: Mikel Pérez González

Proposamena irakurri eta aztertu ondoren, **zehaztutako ebaluazio-irizpideak aintzat hartuta, aurkeztutako lana saritzea erabaki du epaimahaiak**. Dena dela, kode-alternantzia zergatik gertatzen den ikertzerako garaian, hizkuntza-gaitasunak duen eragina neurtzea da, bereziki, Mintzolari ekarpena egingo diona. Ildo horretan, hizkuntza-gaitasunean hizkera informalkak duen lekuari ere begiratzeko proposamena egingo zaio ikertzaileari.

Bilbo, 2023ko maiatzaren 5a